

Greba deialdi berria Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan abenduaren 3 eta 4rako patronalak hitzarmen berria negoziatzera eser daitezen inolako murrizketarik gabe eta aplikazio bermekin

Patronalen eta Eusko Jaurlaritzaren mugimendu ezaren aurrean irailaren 26ko grebari eta azken hilabeteetako lanuzte eta mobilizazioei jarraipena ematen dien bi egunetako greba deitu dute sindikatuek gatazkari txantaje eta murrizketarik gabeko irteera exijitzeko

Irailaren 26ko greba eta urriko lanuzte eta mobilizaziok ez dute ez Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalen ezta Eusko Jaurlaritzaren inolako erantzunik jaso.

Mobilizazioekin batera sindikatuek horrela eskatuta Eusko Jaurlaritzarekin bilera eta Legebiltzarrean agerraldia ere burutu dugu eta aste honetan bertan 6.704 sinadura aurkeztu ditugu Eusko Jaurlaritzaren aurrean. Mobilizazio, azalpen, eskaera eta ekimen hauek ordea oraindik ez dute ez patronalen ezta Eusko Jaurlaritzaren jarreretan aldaketarik eragin eta langileak dira, ikasle eta familiekin batera, egoera honen ondorio larrienak sufritzen ari direnak, izan ere beraien lan-baldintzak airean baitaude eta ikastetxeetako giroa ez da izan beharko lukeena.

Patronalek estatuko hitzarmena aplikatzen jarraitzen dute, soldatetan murrizketak diraute, kontratazio berriak baldintza berri eta okerragoetan egiten dira, hainbat onura sozial ez dira betetzen ari (amatasun eta edoskitzaro baimena, jarraitutasun saria, 58 urterekin irakastorduen murrizketa, urte sabatikoa...). Orain arte ez dute txantaje hauek erretiratzeko inolako asmorik agertu ezta negoziazio mahaia deitu eta murrizketarik gabeko hitzarmen berri bat negoziatzeko borondaterik azaldu.

Eta hau honela izanik, Eusko Jaurlaritzak publikoki hitzarmenen eta ultraaktibitatearen alde hitz egin arren eta ituntze-moduluak EAeko hitzarmenean oinarritu, ez du pausorik eman hitzarmenaren betetzea exijitzeko eta gatazkari behin-betiko irtenbidea emateko bitartekoak jartzeko.

Sindikatuon ustetan, krisia aitzakia murrizketen inposaketa eta lan eskubide eta baldintzen eraso izugarri honen aurrean gure aldarrikapenak erabat oinarritzakoak direla uste dugu eta ondorioz bai Eusko Jaurlaritzak baita patronalek ere aintzat hartu beharrekoak:

- Patronalek alde bakarrez urraturiko hitzarmena betetzea eta langileei zor dietena ordaintzea.
- Hitzarmenaren negoziazioa aurreko hitzarmenetik abiatzea, hau da, inolako murrizketa planteamenturik gabe.
- Lan-erreformaren aurrean ikastetxe bakoitzean EAeko hitzarmenaren edukia beteko dela bermatzea eta hurrengo hitzarmena sinatu bitartean honek balio izatea.

Blokeo egoera honen aurrean, sektoreko sindikatu eta langileoi ez digute mobilizazio beste biderik uzten gure eskubideak eta lan-baldintza defendatzeko.

Horregatik, datorren **abenduaren 3 eta 4rako greba deitzen dugu EAeko Itunpeko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan bai Eusko Jaurlaritzak baita Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek ere gure aldarrikapenak entzun eta gatazka honi konponbidea aurkitzeko pausoak eman ditzaten**. Abenduaren 3an ikastetxeetan, herrietan eta eskualdeetan elkarretaratze eta manifestazioak egingo ditugu Bilbo, Donostia eta Gasteizen manifestazio nagusiekin amaituz. Abenduaren 4ean berriz, Gasteizen Lakuako Eusko Jaurlaritzaren egoitzatik abiatu eta Legebiltzarrean bukatuko den manifestazioa burutuko dugu, Eusko Jaurlaritzari erantzukizuna eskatuz eta legebiltzarrean lantzen ari diren aurrekontuetan murrizketak alde batera utzi eta egoera honi ere irtenbidea emango dion baliabideak kontutan har ditzaten.

Bestalde, egoera sozializatu asmoz, datorren **azaroaren 26an auto-karabanak egingo ditugu hiriburuetan eta herrialdeetan**.

Beraz, langileei berriro ere mobilizaziora dei egiten diegu patronalei, murrizketen pisu nagusia langileoi inposatu nahi izateko beraien estrategia alde batera utzi eta EAeko hitzarmenaren negoziazioari ekin diezaiotela eskatzeko, inolako murrizketa planteamendurik gabe eta beharrezko diren aplikazio bermekin. Eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu langileak sakrifikatu ez dituen eta hezkuntza sistemari eta langileen egoerari egonkortasuna emango dion irteera bidea aurki dezala.

Gure aldarrikapenek erantzunik jaso ezean mobilizazio berriekin erantzutea beste biderik ez digute uzten.

Euskal Herrian, 2013ko azaroaren 21ean